

Errioguarda jatetxea Cider Week astean ari da parte-hartzen

Kronika - Erredakzioa 2024ko urr. 24a, 00:00

Entzun ▶ ▼



2024ko Sagardo Forumean ere probatu ziren sagardoak.

Sagardoetxea Museoak antolatuta, 2024ko aste honetan eta datorren astean zehar egingo da.

Sagardoetxea Museoak antolatuta, aste honetan eta datorren astean Cider Week ekimena martxan da. Horrela, bi aste hauetan sagardo dastaketak eta harmonia gastronomiko bereziak eskainiko dira bertako zein nazioarteko sagardoekin Donostiako, Tolosako, Arrasateko eta Hernaniko hamar leku gastronomikotan: Ama Tolosa (Tolosa), Bertakoteka (Tolosa), Tolosaldea Jatetxea (Tolosa), Arteaga Jauregia (Arrasate), Mala Gissona (Donostia), Errioguarda Enea (Hernani), Bodega Klandestina (Donostia), Taupada (Donostia), Sukaldean Aitor Santamaria (Donostia) eta Basqueland Izakaia (Donostia).

Hernaniko Errioguarda Enea jatetxean merkatuko menua nazioarteko sagardoarekin dago eskuragarri aste honetako eta datorren asteko menuan.

Beren eskaintza gastronomikoan oinarrituta, proposamen berritzaile eta interesgarria aurkezten dute Cider Week 2024 barruan, bertako zein nazioarteko sagardoan aniztasuna azpimarratuz. Sagardoan dastaketetatik hasita menu berezietara, eskaintzak sagardoaren eskutik bidaia zapoetsua egitera gonbidatzen gaitu, esperientzia gastronomiko berriak bizitzeko.

Aurkezpena asteartean izan zen Donostiako Taupada tabernan izan zen. Bertan izan dira Libe Otegui Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismoko zuzendaria eta Clara Navas Eusko Jaurlaritzakoa, «bisita turistikoak lurralde osora, ez bakarrik Donostiara, eramateko» bidean lan egiteko aukera ematen duen ekimen bati babesa emateko.

Sagardo sektorearen dibertsifikazioa

Sagardoaren sektoreak dibertsifikazio haundia jasan du azken 5 urteetan, eta horren adierazgarri da Sagardoaren Lurraldeak bi urtetik behin antolatzen duen Sagardo Forum ekitaldia. Bertan sagarrari zein sagardoari buruzko jardunaldi teknikoak, Nazioarteko Sagardo Lehiaketa, Nazioarteko Sagardo Azoka zein Cider Week astea antolatzen dira, 3 egunetan sagardoa erdigunean jarrita.

Hurrengo Sagardo Foruma 2025ean izango den arren, Cider Week 2024 ekimenak bertako sagardoak zein nazioartekoak ezagutzeko eta dastatzeko aukera paregabea eskainiko digu aurten ere.

Horrelako ekimenek sagardoaren kultura eskaintzeko ildoan lan egitea ahalbidetzen dute, «ez txotx garaian bakarrik». Izan ere, bere garaian «Sagardoaren Museoa sortzearen helburu nagusietako bat horixe izan zen, sagardo-kulturaren erakargarritasuna urte osora eramatea». Udazkena da Sagardoetxean bisita gehien izaten diren urtea, hain zuzen ere sagardotegi denboraldi nagusia ez dena. Cider Week-en urteroko ospakizunak ahalbidetzen duen alderdietako bat azken urteetan sagardoak hartu duen aldakortasuna erakustea da. Bertsio bakarreko produktu tradizionala izatetik formatu desberdinetan eskaintzera igaro da.

[Gizartea](#) [Astigarraga](#) [Hernani](#)

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikakide gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez KronikaKide!


Erantzun



Justiziak bertan behera utzi du eskola kirolaren derrigortasuna kirol-klubean parte hartzeko



San Anton Kirolaren ez zen falta izan jan-edana



Ereñotzun hasiko da 2025eko bola eta toka denboraldia, bihar



Sanatzen zelaian jokatuko du Hernanik gaur, aurteneko itzulia bukatzeko

Ikusienak



[Astigarragako Udalak laguntza eskatu dio Foru Aldundiari gai estrategikoetan](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 23, 00:00 [Astigarraga](#)



[Joanes Larretxea zoriontzeko argazkia, bihar](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 23, 00:00 [Hernani](#)



[Kurtso hasierako erakustaldia, Hernani Gimnastika Kirol Klubak](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 23, 00:00 [Hernani](#)



[Gema Zubillagak irabazi du Errigorako zozketako saski gorria](#)

Kronika - Erredakzioa
2024 aza 18 [Hernani](#)



[Astigarragako Jabetze Eskolan izenemateko azken eguna, gaur](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 23, 00:00 [Astigarraga](#)



[Ipuin kontaketako bi saio gaur Lur Kortarekin](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 23, 00:00 [Hernani](#)

Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkarte](#)

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · [kronika\[ABILDUA\]kronika.eus](#)



Codesyntaxek garatua

[HONI BURUZ](#) [LEGE OHARRA](#) [PUBLIZITATEA](#) [ARAUAK](#) [HARRERMANETARAKO](#) [RSS](#)

[Gipuzkoako Foru Aldundia](#) [Hernaniko Udala](#) [Astigarragako Udala](#)





Gertuko informazioa, euskaraz

AIARALDEA	AIKOR	AIURRI	ALEA	AMEZTI	ANBOTO	ANTXETA IRRATIA	ATARIA	AZPEITIA GUKA	AZKOITIA GUKA
BARREN	BEGITU	BERRIKETAN	DROGETEN ITTURRI	ERRAN	EUSKALERRIA IRRATIA	GEURIA	GOIENA	GOIERRI TELEBISTA	
GUAIXE	GUKA	GUKA TELEBISTA	HIRUKA	KRONIKA	MAILOPE	NOAUA	OIZMENDI TELEBISTA	ORIO GUKA	PLAENTXIA
		TXINTXARRI	URIOLA	ZARAUTZ GUKA	ZUMAIA GUKA	28 KANALA			
			Matx	Gurean	Plazanbazan	Ttap			
				Tokikom publizitatea					